

JOSTAILUEK GENERORIK AL DUTE?

JOLASAK ETA JOSTAILUAK AUKERATZEKO

GOMENDIO eta IRIZPIDEAK

Jolasa= ikasteko egoera naturala. Jolasaren bidez, haurraren garapen pertsonala hobetzeko trebetasun positiboak bereganatzen dira: estimulazioa, irudimena eta fantasia; ulermen teknikoa, inguruarekiko harremana, inguruko arau eta jarreraren ezagutza, balorazio pertsonala, egoera ezberdinen aurrean portaerarako nortasuna eraiki eta indartzea, norberaren ezagutza... . Haurtzaroan jolasa ezagutza, ikasketa eta adierazpenerako bitarteko nagusia da.

Jostailua= jolasa aberasteko baliabidea. Hezkuntza prozesuan oso garrantzitsuak dira. Jostailuak ez dira entretenimendu hutsa. Jostailuak berez ez dira ez onak ezta txarrak ere. Haien egokitasuna haien erabileraren arabera da baina ezinbestekoa da azterketa kritikoa egitea estereotipo sexistak barnera ez ditzaten.

ZER NOLAKO JOSTAILUAK AUKERATU BEHARKO GENITUZKE?

Neskak, mutilak, edozein umek jolastu ahal izatea

Genero zehatzekin identifikatzen diren jolasak alboratu. Edozeinek jolasean eroso aritzeko aukera izatea garrantzitsua da, bazterketa saihesteko. Horrela, umeen arteko harremanak sendotuko dira, genero sozializazio ezberdindua maila batean baztertuz.

Estereotipo sexisten transmisioa saihestu

Gure jendarteko eredu sexistak jolasaren bitartez errepikatzea ekidin behar da, haurrek rol horiek barneratzen dituztelako. Hau da, rol sexistak tipifikatzea ekidin behar da. Gainera, etorkizunera begira ikasketa horiek funtsezkoak dira, horren arabera joka dezaketelako. Esate baterako, jolas sinbolikoan aritzean, rol horiek errepikatzeko aukera ugari daude. Gogoratu, nagusien jarrerak eragina duela, eredugarria dela hurrengo belaunaldientzat.

Gainerako haurrekin jolasteko aukera ematea, berdinen arteko harremanak indartuz

Jolasa partekatzeak ikasketa prozesua erraztu eta osa dezake, taldean aritzeak dakartzan aberastasun guztiekin.

Haurren arteko komunikazioa ahalbidetzea

Taldean aritzearekin batera, haurren arteko komunikazioa indartzen da, eta adierazteko zein negoziatzeko gaitasunak garatzen lagunduko die, etorkizunean ondorioak izango dituenak.

Harreman parekideak bultzatzea, ez etsaitasunezkoa zein lehiakortasuna

Jolasean harremanek berdinen artekoak izan behar dute: jolasean hartzen dituzten rolak parekideak izatea komeni da eta lidergo jarrerak saihestea ezinbestekoa. Gehiegizko lehiakortasuna eta etsaitasuna oztopa ditzakete haurren arteko erlazioek.

Baztertzailea ez izatea: edozein haurrek jolastu ahal izatea, ez soilik gaitasun bereziak dituztenak

Jolasa baztertzailea izatea saihestu behar da, talde-kidetza indartzea nahi badugu, ahalik eta inklusiboena izan behar du; beraz, gertuko haurren gaitasunei ere erreparatu beharko diegu.

Gehiegizko lehia eta indarkeria ekidin

Jarrera bortitzak sustatzen dituzten jolasak ezeztatu behar dira, horiek indarkeriazko jokabideak bultzatzen dituztelako. Adibidez: pistolak, tankeak, armak... Jarrera oldarkorrek ez bultzatzea lehenestu behar da.

Harreman kooperatiboak indartzea

Haurren arteko lankidetza sendotzea komeni da harremanetarako abileziak garatzeko, baita botere harremanak ekiditeko (lidergo jarrerak) eta taldean aritzeko gaitasunak lantzeko. Elkarrekintza soziala eta, batez ere, elkarrekintza kooperatiboa sustatzea komeni da.

Dibertigarria eta motibagarria izatea: jolasteko gogoak piztea

Gozamena eta dibertsioa badira jolasaren xede nagusietako bat, jolasa erakargarria izan beharko da, haurrak behin baino gehiagotan eta gogotsu jolasean aritzeko.

Irudimena eta sormena garatzen laguntzea

Irudimena giltzarria da jolasteko, eta jolasak irudimena zein sormena garatzen laguntzen badu, haurrak hainbat arlo haziko ditu bere eguneroko bizitzarako (jolasteko, besteak beste) eta etorkizunerako. Umeen jarduera, irudimena eta trebetasuna suspertzea, alegia.

Jakin-mina piztea, jostailuari beste aukera batzuk bilatzeko

Sormena garatzearekin batera, jolasak jakin-mina piztu behar du, ekimenezko jarrerak bultzatzeko. Jakin mina piztea eta motibagarria izatea elkarrekin doazen faktoreak dira.

Hausnartzeko gaitasuna bultzatzea, hala nola, gatazkak konpontzeko gaitasuna lantzea

Jolasak hainbat egoera irudikatzen eta horiek, maila batean bizitzeko abagunea ematen die. Egoera horiek pentsatzeko eta sentitzeko aukera ematen die, beste rol batzuetan jarritz, eta suerta daitezkeen gatazken aurrean erabakiak hartzera bidera ditzake, gatazkak konpontzeko gaitasuna landuz

Bizitzarako eredu anitzak bilatu

Estereotipoetan oinarritutako ereduak errepikatzen dituzten jolasak ekidin, eredu horiek gainditzeko. Horien aurrean bestelakoak harremanak irudikatzen dituztenetara bideratu behar dira, aniztasuna ezagutu aldera: familia eredu anitzak, feminitate zein maskulinitate eredu anitzak, guraso eredu ezberdinak, kultur aniztasuna...

JOSTAILUAK EROSI AURRETIK ZER NOLAKO GALDERAK EGIN BEHAR DITUGU?

Jostailu ez sexistak identifikatu eta jostailua hobeto ezagutu ahal izateko ondorengo galderak egitea komeni da:

-Aproposa da haurraren adinerako?

-Zein gaitasun landuko ditu jolasaren bitartez? Irudimena landu eta garatuko du?

- Zergatik eskatu du jostailu hori? Modagatik, iragarkiagatik... Zein nolako iragarkia du? Estereotipo sexistarik gabeko iragarkia al da?
- Norekin jolas daiteke jostailu horrekin? Neskekin? Mutilekin? Biekin?
- Era kooperatiboan jolastu ahalko da?
- Gainerako haurren berezitasunak errespetatuko ditu?
- Erabilera anitzeko jostailua da?
- Arriskutsua da?
- Zein rol garatzen dira jolasaren bitartez? Zein eratan balioesten dira rol horiek? Era positiboan? Negatiboan?
- Zein irudikapen sinbolikoa dute figura femeninoek eta maskulinoek?
- Lagunduko dio haurrari estereotipo sexistak ez errepikatzen?
- Zein nolako harreman ereduak bultzatzen ditu? Parekideak? Botere harremanik al da?
- Edertasunaren edo maitasun ereduaren mitoak bultzatzen ditu?
- Derrigorrezko amatasuna bultzatzen du?
- Indarkeriazko jarrerak bideratzen ditu?
- Harreman heterosexualak bultzatzen ditu? Bestelako harreman eredurik al dago?

JOSTAILU SEXISTA eta EZ-SEXISTAREN ARTEKO DIFERENTZIAK

JOLAS ETA JOSTAILU SEXISTAK	JOLAS ETA JOSTAILU EZ SEXISTAK
Ez dute neska eta mutilak elkarrekin jolastea baimentzen	Generoa kontuan hartu gabe jolasteko aukera ematen dute
Emakume edo gizon izaten "erakusten" dute	Ez dituzte rolak errepikatzen eta garapen pertsonalak indartzen dituzte, norbanakoaren gaitasunak agerian utziz.
Genero ezberdintasunak bereizten dituzte	Genero estereotipoei erantzuten diete eta generoaz harago doazen gaitasunak lantzeko baliagarriak dira.
Harremanak generoaren arabera zuzentzen dituzte	Eredu ireki eta berrian jolastea ahalbidetzen dute
Sexuaren arabera harremanak bereizten dituzte	Balore positiboak sustatzen dituzte.
Egun bizi dugun eredu erreproduzitzen dute	Berdintasunean oinarritutako eredu bultzatzen dute

ADINAREN ARABERA KONTUAN HARTZEKOAK

.askotarikoak baina ez asko

.jostailu seguruak, interesgarriak, dibertigarriak, erakargarriak eta atseginak

.haurraren adinerako eta garapenerako egokia izatea

ADINA	EZAUGARRIAK	JOSTAILUAK
0-6 hilabete	Zentzumenak esnatzen	Soinua egiten duten jostailuak, ukimena lantzeko jostailuak, koloredun jostailuak, haginka egitekoak...
6-12 hilabete	Gaitasuna berriak: mugikortasuna, soinu eta hitzen ezagutza, esertzen hasi, hartu eta mugitu, ...	Panpin bigunak, testura ezberdinetako objektuak, ikertzeko eta manipulatzeko jostailuak, ibiltzen hastekoak...
12-18 hilabete	Ibiltzeko eta salto egiteko gaitasuna, hartu eta bota, lehen harremanak, hizkuntzan hastapena...	Oihal ezberdinetako panpinak, eraikuntza jostailuak, koloredun jostailuak, pedalik gabeko bizikletak...
18-24 hilabete	Oreka, hizkuntza, inguruarekiko harremana, jendarteratzea, jolas sinbolikoak...	Mugiarazteko jostailuak, adierazpena lantzeko jostailuak, animaliak, panpinak, kotxeak...
2-3 urte	Korrika egin, salto egin, arriskuaren jabetza, gaitasunen garapena, kuriositatea, imitatzea....	Sukaldeko tresnak, kotxeak, trizikloak, eraikuntza jostailuak, musika tresnak, plastilina, arropa-mozorroak, margoak, telefonoak..
3-5 urte	Sormena, jolas sinbolikoa, adierazpena, elkarbanatzea, hitz egin eta galdetu, kideekin harremana, inguruaren ezagutza	Imitatzeakoak (mozorroak, sukaldeko tresnak...), puzzleak, patinak, arbelak, ipuinak, araudun jostailuak, hizkuntza lantzekoak...
6-8 urte	Kuriositatea, irakurmena, adierazpena (idatzizkoa eta marrazki bidezkoa), batuketa eta kenketak, sormena, talde jolasak...	Soka, goma, baloia, txirrindula, puzzleak, kometak, eskulanak, mahai jolasak (memoria, katetoak...), esperimentuak...
9-11 urte	Planak egin, telebista ikusi, kalean jolastu, talde baten parte sentitu nahi, ...	Kirol jarduerak, eraikuntza jostailu konplexuagoak, eskulanak, hausnarketarako jolasak, estrategia jostailuak, talde jolasak...
11 urtetik gora	Sortu, elkarlana, asmatu, lehiatu...	Esperimentatzeko jolasak, mahai jolasak, adierazpena, baloiak, patinak, ordenagailu jolasak...

HAURREN AMETSEK EZ DUTE MUGARIK!

NOLAKOAK IZA(TE)N DIRA JOSTAILUAK SALTZEKO KATALOGOAK?





*MUGATZEN GAITUZTEN JOSTAILUAK HAUTATU BEHARREAN,
AUKERAK ZABALTZEN DIZKIGUTEN JOSTAILUAK HAUTATU!!!*

Eredu berriak



Bibliografia

-Bizkaiko Urtxintxa eskola

-Sortzen ikasbatuaz